AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

# AZKOITIKO UDALAREN JABETZAKO HAINBAT ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

## AURKIBIDEA


1. XEDEA ..... 3
2. ZERBITZUAREN ESPARRUA ETA HEDADURA ..... 3
2.1.ERAIKINAK ..... 3
2.2 IGOGAILUAK ..... 4
2.3 2.1. PUNTUAN SARTU GABEKO ERAIKINETAKO ETA GELETAKO KRISTALAK ..... 4
3. EGUNGOAK ETA ERAIKIN BERRIAK ..... 5
4. GARBIKETARAKO MATERIALA ..... 5
5. GARBIKETA-LANEN ANTOLAKETA ..... 6
6. ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA ..... 7
7. EKIPAMENDUA ..... 7
8. JANTZIAK ..... 8
9. IKUSKARITZA ETA ZUZENDARITZA ..... 8
10. ORDUTEGIAK ETA LANGILEAK ..... 9
11 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ..... 10
12. HONDAKINAK SAILKATZEA ETA BILTZEA ..... 10
13. BALDINTZA OROKORRAK ..... 11
14. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA ETA DBLO-AREKIKO EGOKITZAPENA ..... 13
15. LOKALETARAKO BISITA ..... 13
16. MEMORIA TEKNIKOAREN EDUKIA ..... 13
17 EGIN BEHARREKO GARBIKETA MOTAK ..... 14
18. GARBIKETA-ZERBITZUAREN ZEHAZTAPENAK, ERAIKINAREN EZAUGARRIEN ARABERA ..... 15
*18.1.UDALETXEA* ..... 15
*18.2.KULTUR ETXEA* ..... 16
*18.3.INTSAUSTI JAUREGIA* ..... 16
*18.4 XABIER MUNIBE HAURRESKOLA* ..... 16
*18.5.MUSIKAGUNEA* ..... 17
18.6 HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA ..... 18
18.7 EPA ..... 18
*18.8.AITA MADINABEITIA IGOGAILUA* ..... 18

18.9 AIZKIBEL ETA FLOREAGA ETA MADINABEITIA IGOGAILUA ..... 18

18-10. TENIS-PISTEN, MERKATUAREN ERAIKINAREN ETA ERRETIRATUEN LOKALAREN KRISTALAK. ..... 18

19. ZERBITZUAREN MAIZTASUNA ETA ORDUAK ..... 19

## 1. XEDEA

Baldintza-agiri honen xedea ondoren zehazten diren udal eraikin eta lokalak garbitzeko lanak erregulatuko dituzten baldintza teknikoak ezartzea da. Garbiketa-lanen iraupenak zehaztapenak agiri honetako tauletan zehazten dira.

Aurretik aipatutako gela edo espazio bakoitza osatzen duten elementu guztiak garbituko dira. Orientazio gisa, eta ez zehatz-mehatz, elementu hauen gainean jardun beharko da: altzariak, pixatokiak, konketak, dutxak, hormak, dekorazio-elementuak, sabaiak, pertsianak, argi-puntuak, erradiadoreak, alfonbrak eta moketak, zokaloak, eskudelak

Ingurumena eta lan-osasuna aintzat hartzen duten metodo, praktika eta produktuekin gauzatuko da zerbitzu hau eta hondakinak, besteak beste, zuzen kudeatuko ditu, eraikinetan erabilia den gaikako bilketa-sistemari jarraituz.

## 2. ZERBITZUAREN ESPARRUA ETA HEDADURA

Agiri honetako oinarri teknikoetan zehazten den moduan garbitu beharreko eraikin eta lokalak honakoak dira:

### 2.1.ERAIKINAK

- Azkoitiko Udalaren eraikina
- Kultur etxea

o Beheko solairua: Udaltzaingoa, merkatuko komunak, Urkoa lokala, Portaleburu lokala (erakusketa aretoa).

o Solairuartea: gizarte-zerbitzuek erabiltzen dituzten lokalak, epaitegia eta kontsumitzailearen bulegoa.

o 3. solairua: Areto handia, ikasgelak, korridorea eta komunak.

o 4. solairua: Gela handia, korridorea, komunak eta 2. eta 5. gelak.

o Eskailerak eta igogailua.

• Intsausti jauregia: sarrera, igogailua, beheko solairua eta 1. solairua.

• Liburutegia + Zerbitzu publikoak

• Udaltzaingoaren eta brigadaren ALDAGELA.

• Xabier Munibe haur-eskolak

• HHE lokalak

• Musika eskola

o Eskola (idazkaria, irakasleen gela, bi komun, instrumentuentzako 9 gela, musika-hizkuntzako 3 gela, entsegu 2 gela, fonoteka, informatikako gela, 4 biltegi, dantza-gela, dantzarako jantzien gela, musika-tailerreko gela, sarrera, bi korridore)

o Musika-taldeak (3 entsegu-gela, korridorea eta sarrera, bainugela).

o Musika-banda (entsegu-gela, biltegia, bulegoa).

• Xabier Munibe ikastola

• Hizkuntza Eskola Ofiziala (Gaztanenea)

2.1 puntuan zehazturiko eraikin guztiak garbitzeak barne hartuko ditu barruko gelak, hala nola ikasgelak, bulegoak, aretoak, kontsultategiak, korridoreak, eskailerak, atondoak, komunak, sotoak eta abar, bai eta kanpoko patio eta eskailerak ere, eta, azken batean, eraikina osatzen duten espazio guztiak.

Aurreko geletan dauden altzariak apaintzeko edo elementu osagarri guztiak garbituko dira, eta agiri honetan adierazitako bitartekoak eta maiztasunak erabiliko dira elementu horiek garbitzeko. Orientazio gisa, honako elementu hauek aipatzen dira: altzariak, argi-puntuak, ateak eta arkuak, kristalak, pertsianak, konketak, komunak, pixatokiak, erradiadoreak, zoruak, alfonbrak, metalak, etab.

Dauden ekipamendu higienikoak mantendu, garbitu eta birjarriko dira, hala nola komunetako paperontziak, eskuko lehorgailuak, eskuak lehortzeko eskuoihalen banagailuak, komuneko paperaren banagailuak, xaboiak, komuneko papera eta eskuak lehortzeko gailuak, etab.

**2.2 IGOGAILUAK**

o Aizkibel

o Floreaga

o Maidinabeitia

**2.3 2.1. PUNTUAN SARTU GABEKO ERAIKINETAKO ETA GELETAKO KRISTALAK**

o Teniseko pistetako kristalak.

o Azokako eraikineko leihoen eta ateen kristalak.

o Zahar-etxeko kristalak

## 3. EGUNGOAK ETA ERAIKIN BERRIAK

Esleipendunak, lizitaziora aurkeztu denez, onartu egin beharko du kontratuaren xede diren eraikinen egoera, eta ez du eskubiderik izango bere kontratu betebeharrak egoki betetzeak eskatzen dion gain ahaleginarengatiko inolako ordainik erreklamatzeko.

Bestalde, administrazio-klausula zehatzen agirian aurreikusitako kontratuaren indarraldian eraikin berriak, lehendik daudenak handitu edo erosi berriak diren eraikinak eta udal honen esku geratzen direnak kontratuan sartu ahal izango dira, udalak egokitzat jotzen badu, baldintza-agiri honetan zerbitzua emateko ezartzen diren baldintza tekniko eta ekonomikoetan, betiere Udalak hala erabakitzen badu kontratuaren zenbatekoaren% 20ko legezko mugaren barruan, BEZa barne.

## 4. GARBIKETARAKO MATERIALA

Ohiko garbitze/mantentze lan eta prozesuetan erabiltzen diren produktu kontsumigarriak, garbiketako tresnak eta makineriak, horiek guztiak birjartzearekin batera, enpresa esleipendunaren kontura izango dira, eragiketa uneko kontsumigarriak, hots, argindarra eta ura, izan ezik.

Esleipendunak berak eramango du eraikinak eta lokalak garbitzeko zerbitzua aurrera eramateko erabiltzen diren produktu kontsumigarri guztien gaineko kontrola, horien biltegiaren zaintzarekin batera, produktu faltarik eta horren ondoriozko disfuntzionaltasunik gerta ez dadin. Esleipendunak jakinaraziko dio Azkoitiko Udalari bidalitako produktu kontsumigarriei buruz (bidalitako data, hornitutako produktuak eta horien kopuruak).

Debekatua ondokoak erabiltzea:

1. Anbientadoreak.
2. Pixatokiak lurrintzeko pastillak edo substantziak.
3. Espraiak.
4. Konposatu kimiko hauetakoren bat duten garbiketa-produktuak: alokfenoletoxilatuak eta horien deribatuak, EDTA (etileno-diamino-tetra-azetatoa) eta horien gatzak, NTA (nitrito-tri-azetatoa).
5. 67/548/CCE Direktibaren arabera, kantzerigeno, mutageno edo teratogeno gisa sailkatutako osagaiak.

6. Produktuak ez dira R42 (inhalaziorengatik sentsibilizazioa) edo R43 (larruazalarekin kontaktuarengatik sentsibilizazioa) gisa etiketatuta egongo.

7. Garbigarrien ontzi guztiak zuzen etiketatuta egongo dira, kontratua gauzatzeko klausuletan zehaztutakoaren arabera.

Zerbitzuan zehar erabiliko dituen produktuen zerrenda aurkeztu beharko du lizitatzaileak, horietako bakoitza non, zein gainazaletan eta zertarako erabiliko duen (kristalak garbitzeko, moketak garbitzeko, e.a.) adieraziz, dosifikazioak azalduz eta segurtasunerako fitxa betez, 255/2003 Errege-Dekretuan eta geroko zuzenketetan zehaztutakoaren arabera.

Ontziek dosifikagailu zehatzak izan beharko dituzte.

## 5. GARBIKETA-LANEN ANTOLAKETA

Zerbitzua antolatzeko orduan, lizitatzailea saiatuko da ahalik eta mailarik handiena lortzen zerbitzua emateko eskura jarritako giza baliabideen eta baliabide materialen optimizazioan eta eraginkortasunean, itxura- eta kalitate-egoera egokia ziurtatzen duen mantentze-garbitasuna, erabiltzaileek eraikina erabiltzea ahalbidetuko duena, lortzearren.

Lizitatzaileak instalazioak ezagutu behar dituela kontuan hartuta, zerbitzua emateko proposamen bat aurkeztuko du instalazio bakoitzeko, agiri honetan zehaztutako garbiketak eta maiztasunak gauzatzeko, eta horiek dauden beharretara nahiz eraikin eta instalazio guztien ezaugarrietara egokitzeko.

Halaber,16.puntuan zehazten den azalpen-memoria bat aurkeztu beharko du.

Urte bakoitzaren hasieran, urtarrilean, enpresa esleipendunak Udalari urteko garbiketa-proiektua emango dio, garbiketa-zerbitzuko zentro edo areto bakoitzerako. Alderdi hauek jasoko dira:

- Mantentze-lanetako garbiketak egiteko egutegia.
- Garbiketa orokorrak, hiruhilekoak, seihilekoak eta urtekoak egiteko datak. Garbiketa orokorrak egiteko datek zentro bakoitzean jarduera txikieneko garaiarekin kointziditu beharko dute, zentroaren jarduera ahalik eta gutxien oztopatzeko.

Garbitu beharreko zentro bakoitzerako segurtasun-plan bat aurkeztuko da, kokapenagatik arrisku berezia duten lanak egiteko modua zehaztuz, adibidez, kanpoko leihateak. Esleipendunak horrelako lanak egiteko dituen baliabideak adieraziko dira.

## 6. ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Zerbitzuen antolaketaren jarraipena eta kontrola egitean, bermatu egin beharko da zerbitzuen antolamendua gauzatuko dela, eraginkorra izango dela eta, beraz, eraikinen garbitasuna kalitatezkoa izango dela.

Azalpen-memorian (edukia 16.puntuan zehazten da), lizitatzaileak zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egiteko lanak zehaztu beharko ditu.

Zerbitzuaren jarraipena eta kontrola gauzatzeko, esleipendunak honakoa jakinaraziko du:

1. Produktu kontsumigarrien hornidura. Hiru hilabetean behin eraikin bakoitzera bidalitako produktuen kopurua eta bidaltze data zehaztuz osaturiko zerrenda bidaliko da.
2. Garbitzaileen bajak jakinaraziko dira eta baita ere ordezkatzen dituztenen datuak. Oporraldiak ordezkatzeko garbitzaileen datuak ere jakinaraziko dira.
3. Garbitzaileek egindako lan arriskuei buruzko ikastaroak jakinaraziko dira eta ziurtagirien kopiak Azkoitiko Udalera bidaliko dira.
4. Kontratistak hilero, hiru hilean behin, sei hilean behin edo urtean behin egindako lanen parteak egingo ditu. Udalak parte eredu zehatz bat erabiltzea eskatu dezake

Beraz, esleipenduna beharrezkoak diren agiri guztiak erakustera behartuta dago, udaleko arduradunak hala eskatuta, bereziki lan-istripuei, gizarte-aseguruei, instalazioetako aseguru-polizei buruzkoak eta abar. Era berean, behartuta dago udal-zerbitzu teknikoek zerbitzua ematearekin lotuta eskatzen dizkioten txosten guztiak prestatzera.

## 7. EKIPAMENDUA

Esleipendunak beharrezko tresna eta lanabesak eman beharko dizkie bere langileei, egin beharreko lanetarako egokiak alegia, garbiketa-lanetarako eskuz erabiltzeko ekipoekin batera, eta material horrek guztiak indarrean dagoen araudiaren araberakoa izan beharko du.

Bitarteko osagarriak ere jarri beharko ditu, hala nola aldamioak, eskailerak, seinaleak, segurtasun bitartekoak, etab., zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak direnak.

Erabiltzen den material guztia material homologatua izango da, ezinbestean, eta administrazioak, kontratuaren arduradun eginkizunak betetzen dituen pertsonaren bidez, homologazio hori frogatzea eskatu ahal izango dio esleipendunari.

Enpresa lizitatzaileek, eskaintzarekin batera, zerrenda bat aurkeztu beharko dute, horretan jasoz eraikin bakoitzean zerbitzurako jartzeko eskaintzen dituzten bitartekoak (4 eta 5 taula), eta mantentze-plana. Bitarteko horiek jartzeko exijitu ahal izango zaio esleipendunari, kontratuak dirauen bitartean edozein unetan..

## 8. JANTZIAK

Zerbitzuetako pertsonal guztiak uniformea eramango du. Langileen jantzien kalitateari eta kantitateari dagokionez, lan hitzarmenek eta Laneko Osasun eta Higieneari buruzko Araudiak ezartzen dutena jarraitu beharko da une oro.

Langile guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, zerbitzuen segurtasunera begira.

## 9. IKUSKARITZA ETA ZUZENDARITZA

Esleipendunak beharrezko lan guztiak egingo ditu, Garbiketa Zerbitzua egoki lortu ahal izateko, betiere baldintza-agiri honetan jasotako edukiaren arabera eta sortzen diren gorabeherak bideratu eta behar bezala konponduz.

Kontratu hasi baino lehen, esleipendunak higiezin eta lokalen garbiketari buruzko **Garbiketa Plan** bat aurkeztu beharko dio administrazio kontratatzaileari; horretan, kudeaketa eta administrazio lanak jasoko ditu, normalean konplexuan arituko den pertsonalaren kualifikazioarekin eta pertsonal horrek izango duen iraunkortasunarekin batera.

Azkoitiko Udalak pertsona bat izendatuko du **kontratuaren arduradun** aritu dadin, garbiketa zerbitzuaren prestazioaren jarraipen eta kontrolerako zein Sektore Publikoko Kontratuen arloan indarrean dagoen legediak figura horrentzat aurreikusten dituenetarako, SPKLaren 62. artikuluak dioenarekin bat.

Enpresa esleipendunak **zentroaren arduradun** bat izendatuko du; pertsona horrek izango du garbiketako pertsonalaren jarduera antolatzeko eta koordinatzeko ardura, zerbitzua behar bezala betetze aldera, eta langile horiek egindako lanak ere ikuskatu beharko ditu, sortzen diren gorabeherak bideratzearekin eta kontratuaren arduradun lanak egiten dituen pertsonarekin beharrezko hartu-eman iraunkorra mantentzearekin batera, garbiketa-lanak behar bezala egin daitezen. Administrazioaren errekerimendu arrazoitua dagoenean, enpresa esleipendunak behin betiko ordezkatuko du **zentroaren arduradun** lanetan ari den pertsona.

Administrazioak, gainera, edozein unetan eskatu ahal izango du beharrezko deritzon laguntza teknikoa, esleipendunak dituen obligazioak behar bezala betetzen ari direla eta lanaren kalitate eta egokitasun maila egiaztatzeko.

Eraikinetako erabiltzaileek eskatzen dituzten prestazioak mantentzera begira lortu behar diren helburuen arabera, beharrezko irizten zaio esleipendunaren eta administrazioaren artean elkarlan estu eta iraunkorra garatzeari; eta maila teknikoari dagokionez, beharrezko irizten zaio eraikina eta bertako instalazioak aldian-aldian ikuskatzeari.

## 10. ORDUTEGIAK ETA LANGILEAK

Enpresa esleipendunak beharrezko langileak jarri beharko ditu, kopuruz eta kualifikazioz, kontratu honen gai den prestazioa betetzeko.

**Erakunde kontratatzaileak eraginkortasun irizpideak erabiliko ditu, garbiketako langileen eginkizunak programatzeko eta antolatzeko unean**. Ezartzen diren ordutegiak direnak direla, esleipendunak erantzun egin beharko die ordutegi horietatik kanpo sortzen diren noiznolako gorabeherei. Oro har, garbiketa-lanak egiteko lehentasunezko ordutegia, zentro eta eraikin bakoitzean, hura erabiltzeko denbora libreari egokituko zaio. Ordutegia jarduerak amaitu arteko orduetara eta jarduerak hasi baino ordu erdi lehenago egokituko da, eta zerbitzu edo prestazio bakoitzaren beharren arabera aldatu ahal izango da. Kontratatutako enpresak bere gain hartuko ditu gaueko lanaren eta abarren ondoriozko igoerak aplikatzearen ondoriozko kostu-igoerak.

Esleipendunak zerbitzuaren jarraitasuna mantendu beharko du urte osoan zehar 1 taulan zehazturiko hilabetetan. Ikastetxeetako oporraldietan ere, lanegunetan zerbitzua eskainiko da. Garbiketa orokorrak egingo dira egun horietan Aldi baterako ezintasunak, oporrak, baimenak edo oro har absentismoa direla eta enpresa esleipendunak zentroko arduraduna edo Garbiketa Zerbitzuko beste edozein langile aldatu behar badu, kontratuaren arduradunari eman jakinarazi beharko dio, langile berriaren izena eta honek ordezkatzen duenarena. Ordezkapena egiten duen langileari baldintza-agiri honetan jasotzen diren puntu guztiak aplikatuko zaizkio.

Administrazioaren errekerimendu arrazoitua denean, enpresa esleipendunak behin betiko ordezkatuko du agindu zaizkion obligazioen arabera ari ez den, lana egiteko unean portaera desegokia duen edo baldintza-agiri honek jasotzen dituen obligazioetakoren bat betetzen ez duen Garbiketa Zerbitzuko langile oro.

Esleipendunak administrazioari emango dio aditzera bere langileen zerrenda izenduna, lan kontratuekin eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera, hori guztia baldintza-agiri honi eta Baldintza Administratiboen Agiriari egokituko baitzaie; zerrenda izendun horretako aldaketa ororen berri eman beharko da, eta Baldintza Administratiboen Agirian ezarritako kasuetan, aldaketak aurretiazko baimena beharko du.

Garbiketa Zerbitzuari atxikitako pertsonalak higiezina garbitzeko beharrezko prestakuntza izango du, bai laneko portaerari bai garbiketa metodoei dagokienez.

Esleipendunak komunikazio-sistema mugikor bat izango du, zentroko arduraduna edo enpresako ordezkaria lokalizatu eta berehala jakinarazi ahal izateko, eta horren zenbakiak Administrazioari jakinaraziko dizkio.

## 11 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da langileei lanak egiteko beharrezko babes-elementu guztiak ematea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Lege indardunean eta araudi osagarrian eta lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta garbiketa-sektoreko langileentzako Laneko Segurtasun eta Osasun Arauetan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoaren arabera, bai eta langileen baldintzak hobetzen dituzten eta egun indarrean dauden hitzarmen kolektiboko enpresak ordezten dituzten laneko segurtasun- eta osasun-arauen arabera ere.

Era berean, esleipendunaren betebeharra izango da babesteko eta seinaleztatzeko behar diren elementuak jartzea, lanak egiten diren bitartean inoren istripurik gerta ez dadin.

Esleipendunak zerbitzua gauzatzeko, teknikari eskudun batek sinaturiko segurtasun- eta osasun-plan bat aurkeztuko du eta proposatutako garbiketa-planaren parte izan beharko du. Plana Udalari entregatu beharko zaio kontratua formalizatu aurretik.

## 12. HONDAKINAK SAILKATZEA ETA BILTZEA

Hiri hondakinak edo asimilagarriak egunero bilduko dira, zentro bakoitzean dagoen sailkapenaren arabera, eta kanpoan hurbilen kokatuta dauden edukiontzien barruan sartuko dira.

Hondakinak garbiketa-aldian kendu beharko dira. Hala ere, bilketa normal hori egin arren zaborrak pilatzen badira, esleipendunak edukiontziak behar beste aldiz erretiratuko ditu, bete ez daitezen. Arau hau ez betetzea hutsegite larritzat hartuko da agiri honetan aurreikusitako zehapenak aplikatzearen ondorioetarako.

Poltsak edo poltsen edukia bideetan ez erortzea zorrozki zainduko da, eta garraiatzen edo manipulatzen dituzten langileek isurketak berehala kenduko dituzte. Arau hau ez betetzearen ondoriozko edozein zehapen esleipendunari dagokio.

Esleipendunak sortutako hondakinak gaikako bilketa sistema bat ezarri beharko du, eraikin bakoitzera egokitua.

Hezkuntza-izaerako eraikinetarako, gutxienez honako hondakin hauen bereizketa bermatu beharko da:

- Papera eta kartoia.
- Beira
- Ontzi arinak
- Materia organikoa
- Gainerako zatia, emakumeen higiene-unitateetarako berariazko edukiontziekin
- Gatz-pilak, alkalinoak eta botoi-pilak.
- Tonerra eta tinta-kartutxoak.

Bulegoetarako erabiltzen diren eraikinetan, eduki beharreko edukiontziek honako frakzio hauek bereizteko aukera eman beharko dute:

- Papera eta kartoia.
- Ontzi arinak
- Materia organikoa
- Gainerako zatia, emakumeen higiene-unitateetarako berariazko edukiontziekin
- Gatz-pilak, alkalinoak eta botoi-pilak.
- Tonerra eta tinta-kartutxoak.

Gainerako eraikinetan, edukiontzi nahikoak daudela ziurtatuko da, honako frakzio hauek bereizteko:

- Papera eta kartoia.
- Ontzi arinak
- Materia organikoa

Esleipendunak edukiontziak egoera ezin hobean eduki beharko ditu, eta garbitu eta desinfektatu egin beharko ditu, erabiltzeak eskatzen duen maiztasunarekin.

## 13. BALDINTZA OROKORRAK

1. Lanak egiten ari diren bitartean, esleipendunaren ardura da bere langileek betetzea une bakoitzean aplika daitezkeen derrigorrezko arau guztiak, bai alderdi teknikoei bai segurtasun eta higieneari lotuei dagokienez.

2. Esleipendunak zerbitzuaren jarraitutasuna mantendu beharko du 1 taulan zehaztutako hilabetetan. Eskolako oporraldietan ez da zerbitzua etengo eta garbiketa orokorrak egingo dira.

3. Esleipendunak bere gain hartzen du aurkezten duen eskaintzaren eta horretatik ondorioztatzen den Garbiketa Planaren egokitasun tekniko, legal eta ekonomikoaren ardura, garbiketa zerbitzuaren kontratuaren xedea lortzera eta arau aplikagarri guztiak zorrotz betetzera begira.

4. Esleipendunak hilero eman beharko dizkio administrazioari, kontratuaren arduradun eginkizunak betetzen dituen pertsonaren bidez, Gizarte Segurantzaren likidazioen kopiak, TC1 eta TC2 ereduenak, baldintza-agiri honen aplikazio esparruan zerbitzua ematen duen pertsonalari dagokionez. Era berean, kontratatutako zerbitzuetarako esleitutako langile-zerrendetan izandako gorabeherak edo aldaketak eman behar ditu aditzera, behar besteko aurrerapenez.

5. Esleipendunaren ardura da zerbitzuan zehar garbiketako produktu edo ekipo desegokiak erabiltzeagatik zein bere langileen jarduera arduragabearengatik eraikin eta lokaletan gertatzen diren kalteak konpontzea.

6. Zerbitzuaren xede diren lanak planifikatzean eta garatzean, esleipendunaren ardura da derrigorrean bete beharreko araudi guztia betetzea; eta egiten duen jarduerari une bakoitzean aplikagarri zaion praktika onaren bidetik jo beharko du halaber, alderdi teknikoetan, administratiboetan, zerga arlokoetan, merkataritzakoetan, laneko arriskuen prebentzioari lotuetan eta abarretan. Horregatik, langileek behar dituzten prestakuntza ikastaroak egin beharko dituzte, aipatutako gaien inguruan langile horien ezagutza egunean mantentzeko .Prestakuntza esleipendunaren kargura joango da.

7. Esleipendunak, ekipo, makina, instalazio eta obra zibilaren segurtasuna zaintzeaz gain, elkarlanean aritu beharko du administrazioarekin, eraikin bakoitzeko Larrialdi Planak zehazten dituen jarduera guztietan, sute, ebakuazio, hondamendi... simulazio eta egoera errealetan, eta jarduera horietarako beharrezko tresnak eta bitartekoak jarri beharko ditu.

8. Kontratistak derrigorrezko aseguruak eduki beharko ditu, hirugarrenekiko -pertsona zein objektuekiko- kalteetarako erantzukizun zibileko aseguru batekin batera, kontratua indarrean den bitartean.

9. Zerbitzuaren organigrama aurkeztuko du eskaintzan kontratistak, bere langile-zerrenda behar bezala zehaztuta..

## 14. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA ETA DBLO-AREKIKO EGOKITZAPENA

Kontratua betetzen ari delarik ezagutu dezakeen edozein daturen gaineko erabateko konfidentzialtasun eta erreserba mantendu beharko du esleipendunak; ezin izango du horrelako daturik kopiatu ez erabili baldintza-agiri honetan jasotzen den xedeaz bestelako baterako, ez hirugarren batzuei laga, ezta kontserbazio ondorioetarako ere.

Esleipendunak abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoa bete beharko du, datu pertsonalen eta eskubide digitalen bermeari dagokiona.

Enpresak, edo enpresaren kideetako edozeinek, datuak beste xede batera bideratzen, aditzera ematen edo kontratuko baldintzak urratuz erabiltzen baditu, bera izango da egindako arau-hausteen arduraduna.

## 15. LOKALETARAKO BISITA

Baldintza-agiri honen xede diren lokalak bisitatu nahi dituzten lizitatzaileek horretarako aukera izango dute zehaztutako egunetan. Udalak egun bat jarriko du eraikin guztiak ikuskatzeko, eta kontratuko eraikin guztiak bisitatuko dira. Bisita-eguna kontratazio profilean argitaratuko dira. Era berean, helbide elektroniko honetan kontsulta egin ahal izango da: ingurumena@azkoitia.es, edo telefono honetan: 943857172, Amaia Argarateren harremanetan jarrita.

## 16. MEMORIA TEKNIKOAREN EDUKIA

Agiri tekniko honetan azaldutakoa kontuan hartuta, memoriak gutxienez eduki hauek izan beharko ditu:

1. Garbiketa-lanak antolatzeko proposamena: beharrezko langileen kalkulua, zerbitzu-orduak, lan-ordutegiak, eraikin berean langile bat baino gehiago biltzen direnean langileak zonifikatzea, lanbide-kategoriak, lantaldea (3. taula hartuko da erreferentziatzat). Hilekoa baino maiztasun handiagoa duten garbiketa-jarduketen urteko egutegia aurkeztuko da eta zehaztuko da: behar diren langileak, garbiketa egiten duen langilea zentroari esleitutakoa bada edo kanpokoa bada, lanbide-kategoria, gauzatze-denbora, lan-ekipamendua eta erabili beharreko makineria. **Taula horiek ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko.**
2. Zerbitzuaren jarraipena eta kontrola: kontrola egiteko izendatutako langileak, dedikazioa, kontrol-tresnak, Udalarekin komunikatzeko sistemak, gorabeheren jarraipena, etab

3. Produktuen, garbiketa-tresnen eta makineriaren zerrenda zehatza, horien ezaugarriak eta horiek eraikin bakoitzean erabiltzeko aukera. **Informazio hau 4. eta 5. Tauletan zehaztuko da. Taula horiek ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko.**

Gehienez 40 orrialdeko memoria teknikoa aurkeztuko da. 200.000 karaktere, espazioekin zenbatuta. Gehieneko luzapen horrek barne hartzen ditu orri-oineko oharrak, eranskinak, eskemak, argazkiak, grafikoak eta erantsi daitekeen beste edozein dokumentazio mota. Azala eta aurkibidea kanpoan geratzen dira.

Ez dira baloratuko lehen adierazitako gehieneko hedadura gainditzen duten proposamenak. Produktuen eta makinariaren fitxa teknikoak ez dira kontuan hartuko.

## 17 EGIN BEHARREKO GARBIKETA MOTAK

1. taulan, eraikin bakoitzaren gutxi gorabeherako azalera, irekitzeko ordutegia, zerbitzua eskaini beharreko hilabete kopurua eta zerbitzua eskaini behar den ordu kopurua zehazten da (eguneko ordu kopurua eta asteko egun kopurua).

2. taulan, eraikin bakoitzean egin beharreko garbiketa-eragiketak eta horien maiztasunak zehazten dira.

Kontratistak gauzatzen duen antolaketak irizpide hauek bete beharko ditu:

1. Desinfekzioa behar den eremuetan, garbiketak oso zorrotza izan behar du, eta desinfekzio-maila handiagoa bermatzen duten prozedurak eta sistemak aplikatu behar dira, bereziki, jende askok erabiltzen duen instalazio publikoetan hala nola konketak, bainugelak, herritarrentzako arreta-mahaiak, etab.

2. Bulego, askotariko aretoak, hallak eta beste gune komun batzuen garbiketan mantentze-lanen garbiketa ziurtatuko da; itxura eta kalitatea egokia ziurtatutako da, erabiltzaileek erabil ditzaten.

3. Eraikin eta guneak behar bezala garbitzeko behar diren baliabideak erabiliko dira beti, garbiketa-produktuak eta tresnak dituzten karroak, makinak, eskailerak eta abar.

4. Bulegoetarako, askotariko geletarako, ataurreetarako, korridoreetarako eta beste eremu komun batzuetarako material mota bat erabili behar da, eta komunetarako, dutxetarako eta konketetarako material bereizia erabiliko da. Baietak desberdinak izango dira, erabilera desberdineko kolore-kode baten bidez identifikatuz.

5. Eraikin eta guneak behar bezala garbitzeko behar diren baliabideak erabiliko dira beti, garbiketa-produktuak eta tresnak dituzten karroak, makinak, eskailerak eta abar.
6. Salbuespenezko garbiketak/garbiketa bereziak izango dira salbuespenez eta behin bakarrik egiten direnak, hala nola:
   6.1 Salbuespenezko jardueren ondorioz, hala nola hauteskunde-egunen, osoko bilkuren aretoko ekitaldien eta abarren ondorioz, nahiz eta jaiegunean izan, garbiketa-lan egokiak egingo dira, Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideen arabera
   6.2 Obrak egin edo eraikinak osorik edo zati batean margotu ondoren, lanek eragindako zatiak oro har garbitzea.

Lanak erabat garbituko dira, bai edukitzailea, bai edukia, baita lurzoru-mota bakoitzari dagokion berariazko tratamendua ere.

Kontratuaren arduradunaren eginkizunak betetzen dituen pertsonak lanak gauzatzeko beste aldi batzuk adierazteko ahalmena izango du, beti ere, eraikinak behar bezala garbituko direla bermatzeko. Gainera, beharrezkoa izan daiteke maiztasunak handitzea, ustekabekoak (meteorologia-agenteek eragindakoak, adibidez) direla-eta. Lan horiek ezohikoak direnez, ez dute kontratuaren kostua handituko.

Noizean behin, eraikinaren esparruaren kanpoko hormetan pintadak egiten badira eta kartelak jartzen badira, garbitu eta kendu egingo dira, egoki diren baliabideekin.

## 18. GARBIKETA-ZERBITZUAREN ZEHAZTAPENAK, ERAIKINAREN EZAUGARRIEN ARABERA

Eraikin batzuen berezitasunen eta haien erabileren arabera, zerbitzuaren ezaugarriak zehaztasun handiagoz definitzeko zehaztapenak egin behar dira, eta horiek hurrengo ataletan deskribatzen dira.

### *18.1.UDALETXEA*

1. Gelak (bulegoak, banatzaileak, bilera-gelak...) astean bitan edo hirutan garbituko dira, tartekatutako egunetan, honako eremu hauetan izan ezik, horiek egunero garbituko baitira:
   - Komun guztiak.
   - Eskailerak lehen solairuraino eta beheko solairuko halla.
   - Herritarrentzako arreta-bulegoak eta gizarte-zerbitzuak.
   - 4. solairuko officea.

- Igogailua.
- Sarrerako ateen heldulekuak.

2. Kontuhartzailetza bertako langileak daudenean garbituko da.

### *18.2.KULTUR ETXEA*

Kultur etxearen eraikinean tipologia desberdineko jarduerak egiten dira; beraz, garbiketa-beharrak desberdinak dira, gelari ematen zaion erabileraren arabera. Hauek dira zehaztapenak:

1. Udaltzainen bulegoa eta merkatuko zerbitzu publikoak astean 6 egunetan garbitu beharko dira.
2. Solairuarteko, 3. eta 4. solairuetako komunak, korridoreak, eta igogailua egunero garbituko dira astean 5 egunetan.
3. Beheko solairuan, "Urkoa" gela, astean 3 egunetan garbituko da.
4. Lehenengo solairuan, epaitegia egunero garbituko da, Kontsumobide bulegoa astean bitan.
5. Hirugarren solairuan, gela guztiak garbituko dira egunero, ekitaldi-aretoa izan ezik, hau astean behin garbituko da.
6. Teilatupeko solairuan, areto handia eta 5. zenbakia tartekatutako egunetan garbituko dira. 2. gela asteko egun guztietan garbituko da.
7. Eskailerak, gutxienez, astean hirutan garbituko dira.

### *18.3.INTSAUSTI JAUREGIA*

Eraikin honetan garbituko da; sarrera, igogailuak, 1. Solairua, eskailerak eta beheko solairua. Beheko solairua hiru hilabetean behin soilik garbituko da.

### *18.4 XABIER MUNIBE HAURRESKOLA*

Zerbitzuaren ezaugarriak 2.taulan zehazten dira.

Garbiketa ez da oporraldietan etengo (abuztuan izan ezik). Zentroa itxita dagoen lanegunetan garbiketa-lan sakonak egingo dira.

Nabarmentzekoa da zolatutako kanpoko aldea egunero garbitzea eta eraikina egunero aireztatzea oso garrantzitsua dela. Zolatutako kanpoaldea egunero garbituko da eta urtean hirutan (irailean, abenduan eta Aste Santuan), ekortzeko eta garbitzeko makina mekaniko baten bidez.

Haurreskoletan, haurrek oso gorputz-harreman estuak izaten dituzte. Gauza bera gertatzen da lurzoruarekin ere: adin horietan, haurrek dena ahora eramaten dute, eskuaren eta ahoaren arteko harremana garatzen dute eta lurrean aurkitzen duten gauza txiki bakoitzarekiko interesa erakusten dute.

Etapa honetan, haurren gaitasun immunologikoa garatzen ari da, eta, elkarren zuzeneko kontaktuan daudenez, gaixotasunak kutsatzeko arriskua handitzen ari da: beraz, funtsezkoa da 0 eta 3 urte bitarteko haurren haurreskoletan instalazioen higiene- eta garbiketa-baldintzak zehatz-mehatz betetzen direla bermatzea.

Horregatik, atal honetan Udalak haurtzaindegia garbitzeko dituen betebeharrak aipatzen dira:

• Udala ez da haurren ehunak garbitzeaz arduratuko, hala nola izarak, lerde-zapiak, eskuoihalak edo antzekoak.

• Udalen ardura izango dira honako elementu eta espazio hauek:

o Instalazioak, oro har, garbitzea: zoruak, hormak, ekipamendu handiak, hala nola armairuak, aldagailuak, apalak edo antzekoak.

o Haurreskolako jolasgunea garbitzea.

o Paper- eta xaboi-dosifika gailuak instalatzea.

o Udalari dagozkion altzarien instalazio eta ekipamenduak garbitzeko produktu orokorrak erostea.

• Haurreskolen erantzukizuna izango da:

o Haurren higiene pertsonaleko artikuluak eta horien higieneak eragindako gastuak familiek emango dituzte.

o Haurreskola bakoitza arduratuko da eskolako material didaktikoa eta horretarako behar den materiala garbitzeaz.

### *18.5.MUSIKAGUNEA*

**ESKOLA**

Egunero eremu komunak, komunak, korridoreak eta hallak garbituko dira. Idazkaritza, irakasle-gela eta ikasgelak (9 instrumentu-gela, musika-hizkuntzako 3 gela, entsegu-gela 2, fonoteka, informatika-gela, dantza-gela, 4 biltegi, dantza-jantzien gela eta musika-tailerreko gela) tarteka garbituko dira; beraz, astean 2 edo 3 egunetan garbituko dira.

**Eraikinaren erabileraren ezaugarriak direla eta (korridoreak eta espazio zabalak), beharrezkoa izango da egunero garbitzeko makina bat edukitzea.**

**MUSIKA TALDEAK**

Espazio hori astean behin garbituko da.

**MUSIKA BANDA**

Hilero egingo da zoruen ekorketa eta garbiketa mekanikoa. Horretarako, ezinbestekoa izango da zentroko langileekin koordinatzea, tresnak kentzeko.

**18.6 HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA (GAZTANENEA)**

Eraikin hori goizez (informatika kurtsoko gelak) eta arratsaldez (hizkuntza-eskola ofiziala) erabiltzen denez, garbiketa-ordutegiak honako hau bete behar du:

Irailetik maiatzera bitartean (biak barne), garbiketa-ordutegia honako hau izango da:

Astelehenetik ostegunera:6:30etatik 8:30etara eta 14:30etik 15:30era

Ostiraletan:6:30etatik 9:30etara

Ekaina: astean behin 3 ordu.

Uztaila eta abuztua: eraikina itxita dago jarduerarik gabe.

**18.7 EPA**

**Ekaina eta iraila bitartean garbituko da (biak barne), astelehenetik ostegunera.**

***18.8.AITA MADINABEITIA IGOGAILUA***

Egunero garbituko eta desinfektatuko da igogailua. Horrez gain, sei hilean behin, igogailuaren egitura osoko kristalak garbituko dira barrualdean eta kanpoaldean.

**18.9 AIZKIBEL ETA FLOREAGA ETA MADINABEITIA IGOGAILUA**

Igogailuaren bidaiari-lekua egunero garbitu eta desinfektatuko da. Horrez gain, sei hilean behin, igoera-egitura osoko kristalak eta igogailuetara sartzeko kristalezko pasabideak barrutik eta kanpotik garbituko dira.

**18.10. TENIS-PISTEN, MERKATUAREN ERAIKINAREN ETA ERRETIRATUEN LOKALAREN KRISTALAK.**

Lokal horietan, eraikinak ez dira barrutik garbitzen. Kristalak tauletan zehaztutako maiztasunarekin bakarrik garbituko dira.

## 19. ZERBITZUAREN MAIZTASUNA ETA ORDUAK

1. taulan eraikin/gela bakoitzerako eta instalakuntzetarako (igogailuak) kalkulatutako dedikazioa islatzen da.

Horretaz gain, I. eranskinean, gelak identifikatzeko, informazio-izaera baino ez duten planoak erantsi dira.

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| 1 TAULA | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ERAIKINA** | | **LOKALA /ARETOA** | **AZALERA** | **IREKIERA DENBORALDIA** | **ZERBITZUAREN ORDUTEGIA** | **HILABETEAK** | **ORDUAK/ EGUNEAN** | **EGUNAK/ASTEAN** | **ORDUAK/ ASTEAN** | **ORDUAK/ URTEAN** |
| UDALETXEA | | Planta Baja+ EP+P1+P2+P3 | 1300 | Urte osoa | 7:30-15:30 | | 7 | 5 | 35 | 1820 |
| KULTUR ETXEA | Beheko solairua | B.S Udaltzaingoa | 72 | Urte osoa | 7:30-15:30 | 12 | 0,75 | 6 | 4,5 | 234 |
| | | B.S Merkatuko komunak | 16 | Urte osoa | 7:00-20:00 | 12 | 0,75 | 6 | 4,5 | 234 |
| | | B.S Urkoa | 30 | Urte osoa | 9:00-14:00<br>15:30-17:30 | 12 | 0,5 | 3 | 1,5 | 78 |
| | | B.S Portaleburu | 120 | Urte osoa | Arratsaldez | 12 | 1 | 1 | 1 | 52 |
| | Solairuartea | Merkatuko solairuarteko lokalak + komunak | | Urte osoa | Arratsaldez | 6 | 1,5 | 2 | 3 | 156 |
| | | EPAITEGIA | 133 | Urte osoa | 9:00-14:00 | 12 | 1 | 5 | 5 | 260 |
| | | KONTSUMOBIDE | 180 | Urte osoa | 9:00-14:30<br>15:30-17:30/<br>8:00-20:30 | 12 | 1,5 | 2 | 3 | 156 |
| | 3ª solairua | 3P.ARETOA | 180 | Urte osoa | 8:00-20:00 | 12 | 1 | 1 | 1 | 52 |
| | | 3P GELAK/KOMUNAK/PASILLOA | 336 | Urte osoa | | 12 | 1,5 | 5 | 7,5 | 390 |
| | 4º solairua | 4P KOMUNAK/PASILLOA/ GELA HANDIA | 120 | Urte osoa | | 12 | 0,75 | 5 | 3,75 | 195 |
| | | 4P Gela 2 eta Gela5 (Gizarte Zerbitzuak) | 70 | Urte osoa | | 12 | 0,33 | 2 | 0,66 | 34,32 |
| | | ESKAILERAK /Igogailua | | Urte osoa | | 12 | 1,5 | 5 | 7,5 | 390 |
| **INTSAUSTI JAUREGIA**<br>Astero tartekatuko da sarrera, eskailera eta igogailuaren garbiketa 1. Solairuaren garbiketarekin. | | Igogailua, sarrera eta eskailerak | | | Urte osoa | 12 | 3 | 1 | 3 | 156 |
| | | 1solairua | | | | | | | | |
| | | Beheko solairua | 3 hilabetean behin garbituko da aparteko orduak sartu gabe. | | | | | | | |
| **LIBURUTEGIA+ BAINU GARBIGARRIA** | | Beheko solairua +1 pisua + 2pisua | 375 | Urte osoa | 9:30-13:30 | 12 | 3 | 6 | 18 | 936 |
| ALDAGELAK BRIGADA/UDALTZAINGOA | | | 265 | Urte osoa | 6:00-22:00 | 12 | 1,5 | 6 | 9 | 468 |

| 1 TAULA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ERAIKINA** | **LOKALA /ARETOA** | **AZALERA** | **IREKIERA DENBORALDIA** | **ZERBITZUAREN ORDUTEGIA** | **HILABETEAK** | **ORDUAK/ EGUNEAN** | **EGUNAK/ASTEAN** | **ORDUAK/ ASTEAN** | **ORDUAK/ URTEAN** |
| **HAURRESKOLA** | Sótano + Planta baja+1ª planta | 477 | Iraila-Uztaila | 7:30-17:00 | 11 | 7 | 5 | 35 | 1645 |
| **HHE** | Planta Baja | 187 | Iraila-Uztaila | L-J 15:00-18:00<br>V 9.30-13:30 | 10 | 1,25 | 4 | 5 | 215 |
| **MUSIKAGUNEA** | PB + Baños de aulas de grupos de música | | Iraila-Ekaina | L-J 0800-20:00<br>V 8:00-15:00 | 10 | 3 | 5 | 15 | 645 |
| | | | Uztaila | L-V 9:30-15:00 | 1 | 1 | 3 | 3 | 12 |
| **XABIER MUNIBE IKASTOLA** | HH(PB+2) | 1700 | Iraila-Ekaina | 8:00-17:00 | 10 | 14 | 5 | 70 | 3010 |
| | LH (PB+3) | 4000 | Iraila-Ekaina | 8:00-17:00 | 10 | 18 | 5 | 90 | 3870 |
| | LH (PB) | 560 | Uztaila | 8:00-15:00 | 1 | 2 | 3 | 6 | 24 |
| **ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS (GAZTANENEA)** | PB+P1<br>** El horario de limpieza debe ser:<br>6:30-8:30 y 14:30 -15:30 | 407 | Iraila-Maiatza (**) | 8:00 14:00<br>15:30-20.30 | 9 | 3 | 5 | 15 | 645 |
| | | | Ekaina | | 1 | 3 | 1 | 3 | 12 |
| **ASCENSOR AITA MADINABEITIA** | Barrualdea | | Urte osoan | | 12 | | | 3 | 156 |
| **ASCENSOR AIZKIBEL Y FLOREAGA** | Barrualdea | | Urte osoan | | 12 | | | 6 | 312 |
| | Pasabideak (pasabideak urtean bi aldiz garbituko dira) | | Todo el año | | 12 | 1 | | 24 | 24 |
| **KANPOALDEKO KRISTALEZKO EGITURA 3 IGOGAILUETAN** | 6 Hilabetean behin garbituko dira, kanpoaldetik eta barrualdetik. | | | | | | | | |
| **TENIS PISTAKO KRISTALAK:** hiru hilabetean behin garbituko dira. | | | | | | | | | |
| **AZOKA PLAZAKO KRISTALAK:** 6 hilabetean behin garbituko dira. | | | | | | | | | |
| **JUBILATUEN ETXEKO KRISTALAK** 4 hilabetean behin garbituko dira**.** | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

TABLA2

## TABLA 2

| EGUNERO | EGUN TARTEKATUAK | ASTERO | HILABETERO | HIRUHILABETERO | LAUHILABETERO | SEIHILABETEROL | URTERO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | ET | A | H | HI | LA | SE | U |

| | **Udaletxea** | **Intsausti Jauregia** | **Liburutegia** | **Udaltzaingoa Brigada aldagelak** | **Haurreskola** | **HHE** | **Musikagunea** | **Xabier Munibe Ikastola** | **Hizkuntz Eskola Ofiziala** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Konketak, komunak eta txorrotak garbitu eta desinfektatzea | E | 1ª PLANTA: Semanal<br>PLANTA BAJA: trimestral | E | E | E | E | E | E | E |
| Komuneko papera, eskuak lehortzeko papera eta gela hornitu eta birjartzea | E | 1ª PLANTA: Semanal<br>PLANTA BAJA: trimestral | E | E | E | E | E | E | E |
| Zoruak garbitzea eta ekortzea | E | A | E | E | E | E | E | E | E |
| Lauzak garbitzea | M | HI | H | H | A | H | H | A | H |
| Eskailerak ekortzea eta garbitzea (behar izanez gero | E | H | E | E | E | | E | E | E |
| Hondakinak erretiratzea (bilketa-puntura garraiatzea barne) | E | A | E | E | E | E | E | E | E |
| Igogailua garbitzea eta desinfektatzea (kristala barne) | E | A | E | | E | | | E | |
| Altzariak garbitzea (mahaiak, gainak...) | ET | A | E | ET | E | E | E | E | E |
| Mahaiak sakon garbitzea (beharraren arabera) | HI | H | E | | H | | H | H | H |
| Zolatutako kanpoaldea garbitzea | | | M terrazas | | E | | | E | |
| Kartelak eta bestelako elementu desegokiak kentzea | E | E | E | E | E | E | E | E | E |
| Heldulekuak eta eskudelak garbitzea eta desinfektatzea. | A | A | A | A | E | A | E | E | A |
| Teklatuak, telefonoak eta pantailak garbitzea eta desinfektatzea. | ET | | ET | ET | ET | ET | ET | ET | ET |
| Lokalen aireztapena | E | A | E | E | E | E | E | E | E |
| Lorratzak kristaletan garbitzea, 2 metroraino | A | A | A | A | E | A | E | E | A |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## TABLA 2

| EGUNERO | EGUN TARTEKATUAK | ASTERO | HILABETERO | HIRUHILABETERO | LAUHILABETERO | SEIHILABETEROL | URTERO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | ET | A | H | HI | LA | SE | U |

| | **Udaletxea** | **Intsausti Jauregia** | **Liburutegia** | **Udaltzaingoa Brigada aldagelak** | **Haurreskola** | **HHE** | **Musikagunea** | **Xabier Munibe Ikastola** | **Hizkuntz Eskola Ofiziala** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Alfonbrak eta moketak xurgatzea | | H | | | E | | | | |
| Zoruen garbiketa mekanikoa. | | | T | T | E | | E | E | |
| Balkoietako, ateetako eta leihoetako errementeria garbitzea | H | H | H | | H | | | | |
| Eserlekuetako tapizatutako eremuak garbitzea. | H (salón de plenos) | SE | | | | | | | |
| Apaletako hautsa garbitzea | H | H | A | H | A | H | H | A | |
| Elementuak garbitzea (erradiadoreak, argi-puntuak, su-itzalgailuak, koadroak eta antzekoak | H | H | H | H | H | H | H | H | |
| Hormetako, sabaietako, erlaitzetako, apaletako eta armairuetako goialdetako hautsa garbitzea | HI | HI | HI | HI | H | HI | H | H | H |
| Barruko eta kanpoko kristalak garbitzea | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI |
| Elementu guztiak sakon garbitzea (zoruak, altzariak, leihateak, pertsianak...) | U | U | SE | SE | SE | SE | SE | SE | SE |
| Zoruak egokitzea (sakoneko garbiketa sistema mekanikoen bidez, argizaria ematea eta distiraraztea, gainazalen arabera) | U | U | U | | U | | U | U | U |
| Alfonbrak sakon xurgatzea eta garbitzea. | | | | | SE | | | | |
| Gortinak garbitzea | U | | | | | | | | |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| KULTUR ETXEA (2 TAULA) | | | | | | | | + |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EGUNERO | EGUN TARTEKATUAK | ASTERO | HILABETERO | HIRUHILABETERO | LAUHILABETERO | SEIHILABETEROL | URTERO | |
| E | ET | A | H | HI | LA | SE | U | |

| | BEHEKO SOLAIRIA | | | | | SOLAIRUARTEA | | | 3. PISUA | | 4. PISUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Udaltzaingoa | Azoka Komunakl | Azokako komuna Egokitua | Urkoa | Erakusketa Aretoa (Portaleburu) | Gizarte Zerbitzuetako gelak | Epaitegia | Kontsumitzaile Bulegoa | 3.pisuko aretoa | Gelak, komunak, korridorea | 4 . pisuko aretoa | Komunak, korridorea, aretoa | Eskailerak Igogailua |
| Konketak, komunak eta txorrotak garbitu eta desinfektatzea. | E | E | R | ET | A | ET | E | ET | A | E | A | E | E |
| Komuneko papera, eskuak lehortzeko papera eta gela hornitu eta birjartzea | E | E | R | ET | A | ET | E | ET | | E | | E | |
| Zoruak garbitzea eta ekortzea | E | E | E | A | A | ET | E | ET | A | E | A | E | E |
| Lauzak garbitzea | | A | A | | | A | A | | | | | | |
| Hondakinak erretiratzea (bilketa-puntura garraiatzea barne) | E | E | E | ET | A | ET | E | ET | A | E | A | E | |
| Igogailua garbitzea eta desinfektatzea (kristala barne) | | | | | | | | | | | | | E |
| Altzariak garbitzea (mahaiak, gainak...) | E | | | ET | | ET | E | ET | | ET | | | |
| Mahaiak sakon garbitzea (beharraren arabera) | H | | | H | | H | H | H | | H | H | | |
| Kartelak eta bestelako elementu desegokiak kentzea | E | E | E | ET | A | A | E | A | | | | | E |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**KULTUR ETXEA (2 TAULA)**

| EGUNERO | EGUN TARTEKATUAK | ASTERO | HILABETERO | HIRUHILABETERO | LAUHILABETERO | SEIHILABETEROL | URTERO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | ET | A | H | HI | LA | SE | U |

+

| | BEHEKO SOLAIRIA | | | | | SOLAIRUARTEA | | | 3. PISUA | | 4. PISUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Udaltzaingoa | Azoka Komunakl | Azokako komuna Egokitua | Urkoa | Erakusketa Aretoa (Portaleburu) | Gizarte Zerbitzuetako gelak | Epaitegia | Kontsumitzaile Bulegoa | 3.pisuko aretoa | Gelak, komunak, korridorea | 4 . pisuko aretoa | Komunak, korridorea, aretoa | Eskailerak Igogailua |
| Heldulekuak eta eskudelak garbitzea eta desinfektatzea. | E | E | E | ET | A | A | E | A | A | E | A | E | E |
| Teklatuak, telefonoak eta pantailak garbitzea eta desinfektatzea. | E | | | ET | | A | E | A | | | | | |
| Lokalen aireztapena | E | E | E | ET | A | ET | E | ET | E | E | E | E | E |
| Lorratzak kristaletan garbitzea, 2 metroraino | A | A | A | A | A | A | A | A | A | A | A | A | |
| Eserlekuetako tapizatutako eremuak garbitzea. | | | | | | | | | H | | | | |
| Apaletako hautsa garbitzea | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H |
| Elementuak garbitzea (erradiadoreak, argi-puntuak, su-itzalgailuak, koadroak eta antzekoak | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H | H |
| Hormetako, sabaietako, erlaitzetako, apaletako eta armairuetako goialdetako hautsa garbitzea | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI |
| Barruko eta kanpoko kristalak garbitzea | HI | | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | HI | |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| KULTUR ETXEA (2 TAULA) | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EGUNERO | EGUN TARTEKATUAK | ASTERO | HILABETERO | HIRUHILABETERO | LAUHILABETERO | SEIHILABETEROL | URTERO | + | | | | | | | | |
| E | ET | A | H | HI | LA | SE | U | | | | | | | | | |
| | | **BEHEKO SOLAIRIA** | | | | | **SOLAIRUARTEA** | | | **3. PISUA** | | **4. PISUA** | | | | |
| | | Udaltzaingoa | Azoka Komunakl | Azokako komuna Egokitua | Urkoa | Erakusketa Aretoa (Portaleburu) | Gizarte Zerbitzuetako gelak | Epaitegia | Kontsumitzaile Bulegoa | 3.pisuko aretoa | Gelak, komunak, korridorea | 4 . pisuko aretoa | Komunak, korridorea, aretoa | Eskailerak Igogailua | | |
| Elementu guztiak sakon garbitzea (zoruak, altzariak, leihateak, pertsianak...) | | | SE | SE | U | SE | U | U | U | U | U | U | U | U | | |
| Zoruak egokitzea (sakoneko garbiketa sistema mekanikoen bidez, argizaria ematea eta distiraraztea, gainazalen arabera) | | U | U | U | U | U | U | U | U | U | U | U | U | | | |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**TAULA 3**

| ERAIKINA | | ESTANTZIA | ZERBITZU ASTEAK URTEAN | ZERBITZUA EGUNAK /ASTEAN | ZERBITZU ORDUAK (ORDUAK/EGUNEAN) | LANA EGITEKO ORDUTEGIA | ZERBITZURA BIDERATUTAKO LANGILEAK* | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AYUNTAMIENTO | | | | | | | | |
| KULTUR ETXEA | BEHEKO SOLAIRUA | UDALTZAINGOA | | | | | | |
| | | AZOKA KOMUNAK | | | | | | |
| | | URKOA | | | | | | |
| | | (PORTALEBURU) | | | | | | |
| | SOLAIRUARTEA | EPAITEGIA | | | | | | |
| | | GIZARTE ZERBITZUAK LOKALAK | | | | | | |
| | | KONTSUMOBIDE | | | | | | |
| | 3SOLAIRUA | GELA HANDIA | | | | | | |
| | | GELAK | | | | | | |
| | | KORREDOREA | | | | | | |
| | | KOMUNAK | | | | | | |
| | 4SOLAIRUA | GELA HANDIA | | | | | | |
| | | GELA 2 ZKIA | | | | | | |
| | | GELA 5 ZKIA | | | | | | |
| | | KORREDOREA | | | | | | |
| | | ESKAILERA ETA IGOGAILUA | | | | | | |

(*) Langile bakoitzak identifikazio bat izango du egiten duen lana eta ordutegia ezagutzeko. Letra edo zenbaki batekin identifikatuko dira.

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**TAULA 3**

| ERAIKINA | | ESTANTZIA | ZERBITZU ASTEAK URTEAN | ZERBITZUA EGUNAK /ASTEAN | ZERBITZU ORDUAK (ORDUAK/EGUNEAN) | LANA EGITEKO ORDUTEGIA | ZERBITZURA BIDERATUTAKO LANGILEAK* | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| INTSAUSTI JAUREGIAI | | HARRERA ETA IGOGAILUA | | | | | | |
| | | ESKAILERAK | | | | | | |
| | | PISUA 1 | | | | | | |
| | | BEHEKO SOLAIRUA | | | | | | |
| LIBURUTEGIA+ KOMUN PUBLIKOAK | | | | | | | | |
| UDALTZAIGOAREN ETA BRIGADAREN ALDAGELA | | | | | | | | |
| XABIER MUNIBE HAURRESKOLA | | | | | | | | |
| HHE LOKALAK | | | | | | | | |
| MUSIKAGUNEA | | ESKOLA | | | | | | |
| | | MUSIKA TALDEAK | | | | | | |
| | | MUSIKA BANDA | | | | | | |
| XABIER MUNIBE IKASTOLA | | | | | | | | |
| HIZKUNTZ ESKOLA (GAZTANENEA) | | | | | | | | |
| IGOGAILUAK | | AIZKIBEL IGOGAILUA | | | | | | |
| | | FLOREAGA IGOGAILUA | | | | | | |
| | | MAIDINABEITIA IGOGAILUA | | | | | | |
| (*) Langile bakoitzak identifikazio bat izango du egiten duen lana eta ordutegia ezagutzeko. Letra edo zenbaki batekin identifikatuko dira. | | | | | | | | |

AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| **4 TAULA** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| PRODUKTU MOTA | APLIKAZIO AZALERA | FABRIKATZAILEA/IZEN KOMERTZIALA | ONTZIAREN BOLUMENA | ML/L DOSIFIKAZIOA |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

| **5 TAULA** | (*) Eraikinean makina horren erabilgarritasuna zehaztuko da. |
|---|---|

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAIKINA 1 | MAKINARIA | | | |
| | MOTA/MODELOA | IZEN KOMERTZIALA | KOPURUA | ERAIKINEAN ERABILGARRITASUNA (*) |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | TRESNAK ETA GARBIKETA MATERIALA | | | |
| | MOTA | IZEN KOMERTZIALA | KOPURUA | ERABILGARRITASUNA |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERAIKINA 2 | MAKINARIA | | | |
| | MOTA/MODELOA | IZEN KOMERTZIALA | KOPURUA | ERAIKINEAN ERABILGARRITASUNA (*) |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | TRESNAK ETA GARBIKETA MATERIALA | | | |
| | IZEN KOMERTZIALA | IZEN KOMERTZIALA | IZEN KOMERTZIALA | ERABILGARRITASUNA |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |